

Laguntza-gidaliburua COVID-19

2020ko urria



OHARRAK



Dokumentu honek bizi dugun alarma-egoerari aurre egiteko zehaztutako ildo espezifikoak jasotzen ditu. Hemen jasotakoez gain, indarrean jarraitzen dute administrazioek ETEen eskura dituzten gainerako tresnek.

Hori dela eta, dokumentu honetan jasotako ildoak ez badatoz bat zure antolakundearen premiekin, gomendatzen dizuegu Beaz taldearekin harremanetan jartzea, beste finantzaketa-zerbitzu edo -tresna alternatibo batzuei buruzko aholkuak eman diezazkizuten.



94 439 56 22



Aurkibidea



1. Bizkaia Aurrera!

2. ETEentzako finantzatze-lerroak

3. Beste neurri interesgarri batzuk





1. Bizkaia Aurrera!

Lurraldea suspertzeko premiazko plana [12 neurriak]



Bizkaia Aurrera!

1. neurria: Mikrokredituak



Mikrokredituak enpresa txikientzat eta Startupentzat (2. fasea)

Xedea	Finantzaketa
Helburua	Bizkaiko 10 langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiei eta teknologia arloko Startupeii, gehienez ere 5 urtekoak direnak eta egoitza soziala Bizkaian dutenak laguntzeko mikrokredituak.
Azalpena	<ul style="list-style-type: none">• 15.000 € arteko maileguak, interesik, komisiorik eta abalik gabe.• Gehienez ere bost urtean itzultzeko eta urtebeteko gabealdiarekin.• Helburua: Merkataritza, ekoizpen eta antolakuntza arloekin erlazionatutako gastuak ordaintzea, baina ez zorrak berriro finantzatzea, ezta pasiboan berregituratzea ere.• Eskabideak aurkezteko epea: irekita.• Lehia sinplea: eskabidearen araberrako ebazpena.• Tramitazioa Seed Capital Mikro webgunearen bidez.• Bateragarria Elkargik edo ICOK abalaturako maileguekin.• Seed Capital Mikro – Bizkaia Aurrera! mikrokredituekin bateragarria, 7.500 € (1. fasea), beste 7.500 eurotan handitu daitekeena, 15.000 €-ra iritsi arte.
Erakunde kudeatzailea	BFA / Seed Capital Mikro
Kontaktua	http://www.seedcapitalbizkaiamikro.org/ Telefonoa: 944 27 50 78

Bizkaia Aurrera!

2. neurria: Enplegu-plan berezia (1/2)



Manten programa

Xedea	Diru-laguntza
Helburua	Enplegu-plan berezia, 10 langile arteko 25.000 enpresa baino gehiagorentzat, enpleguari eusten laguntzeko, 2500 eta 3500 euro arteko laguntza zuzenen bidez (9.000 € gehienez erakunde onuradun bakoitzeko).
Azalpena	<ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko enpresei zuzenduta, edozein dela ere haien forma juridikoa, enpresaburu indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta Bizkaiko elkarte, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk ere.• Diruz lagundu ahal izango dira kontratuak gutxienez 6 hilabetez handitzea edo luzatzea, bai eta aldi baterako kontratua duten langileen aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea ere, 2020ko martxoaren 14tik urriaren 31ra bitartean formalizatuta.• Handitze edo luzapenak: diru-laguntza 2500 €-koa izango da 45 urtetik beherako gizonentzat, eta 3000 €-koa 45 urtetik gorako emakumeentzat edo gizonentzat.• Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea: 3500 euro.• Eskabideak aurkezteko epea: 2020/06/18tik 2020/11/13ra arte, lehia askean.
Erakunde kudeatzailea	BFA
Kontaktua	https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/06/17/l-384_eus.pdf?hash=eb1e741b18877ce8939d1995187e69ae



Bizkaia Aurrera!

2. neurria: Enplegu-plan berezia (2/2)



Kontrata programa

Xedea	Diru-laguntza
Helburua	Enplegu-plan berezia, 100 langilera arteko enpresetan pertsonak kontratatzen laguntzeko, baldin eta horiek langile-premia badute baina gaitasun ekonomikorik ez badute jarduerarik ez dutelako, gutxienez 6 hilabeteko lan- kontratuen bidez. Kontratu horiek 2020ko martxoaren 14aren ondoren langabezia geratu diren pertsonekin formalizatuko dira.
Azalpena	<ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko enpresei zuzenduta, edozein dela ere haien forma juridikoa, enpresaburu indibidual eta profesionalak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak, bai eta Bizkaiko elkarte, fundazio eta irabazi- asmorik gabeko beste erakunde batzuk ere.• Erakunde onuradun bakoitzari eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du 30.000 euroko muga gainditu, ezta 10 kontratazioko muga gainditu ere: aldi baterako kontratuetan, gehienez 2500 € gizonentzat &lt; 45 urte eta 3000 € emakumeentzat eta gizonentzat &gt;45 urte, eta kontratu mugagabeetan, gehienez, 3500 €.• 2020ko martxoaren 16tik 2021eko martxoaren 31ra bitartean formalizatutako kontratuak.• Ezin izango dira diruz lagundu urteko soldata gordina 8.000 € baino txikiagoa duten kontratuak, lanaldi partziala bada, 14.000 € lanaldi osoko kontratuetarako.• Eskabideak aurkezteko epea: 2020/06/18tik 2021/04/15era arte, lehia askean.
Erakunde kudeatzailea	BFA
Kontaktua	https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/06/17/l-384_eus.pdf?hash=eb1e741b18877ce8939d1995187e69ae

Bizkaia Aurrera!

5. neurria: Elkargi maileguen gabezia



Elkargi maileguen gabezia

Xedea	Gabealdia
Helburua	Mailegurik ezari aurre egiteko laguntzen programa, Elkargik abalatutako ETE eta autonomoentzat.
Azalpena	<ul style="list-style-type: none">• Elkargik abalatutako maileguak birfinantzatzeko laguntzak.• Sei edo hamabi hilabeteko gabealdia eskatzeko aukera, printzipalaren itzuli gabe.• Ordaindu gabeko kapitalaren gaineko % 0,3ko komisioa ordaintzeko ekarpena.• Norentzat:<ul style="list-style-type: none">• Bizkaiko autonomoak eta besteren konturako bost langile edo gutxiago dituzten enpresa txikiak.• Lanean jarraitu arren krisiak jota gertatu diren autonomoak eta enpresa txikiak.• Jarduera normala berreskuratzeko laguntza behar duten enpresa txiki eta ertainak.
Erakunde kudeatzailea	Elkargi
Kontaktua	https://web.bizkaia.eus/eu/elkargi-mailegurik-ezari-aurre-egiteko-laguntzen-programa Telefonoa Elkargi Bizkaia: 944 238 228





2. ETEentzako finantzatze-lerroak

Finantzaketa, diru-laguntzak eta laguntzak



ETEentzako finantzatze-lerroak

Finantzaketa



COVID-19 mailegua

Xedea	Likidezia / zirkulatzaileria
Helburua	Edozein jarduera-sektoretako enpresentzako eta autonomoentzako maileguak, likidezia-beharrak finantzatzeko; horrela, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioak arindu ahal izango dira.
Azalpena	Euribor + %0ko maileguak, 5.000 € - 1.000.000 €artekoak, 5 urteko epean (1 gabealdi + 4). Urteko komisioa %0,375ekoa da, eta irekiera-komisioa %0,25ekoa. Gainera, Elkargiren partaidetza sozialaren %2 harpidetu behar da, mailegua amaitzean itzul daitekeena. Osorik online izapidetzen da. <i>Startupen kasuan, Elkargik Aurrera instrumentua aukeratzea gomendatzen du.</i>
Erakunde kudeatzailea	Eusko Jaurlaritza eta Elkargi, Finantzen Euskal Institutuaren bidez
Kontaktua	https://www.elkargionline.com/ E-posta: comercialbizkaia@elkargi.es Telefonoa Elkargi Bizkaia: 944 238 228



ETEentzako finantzatze-lerroak

Finantzaketa



ICO abalak – Enpresak eta autonomoak

Xedea	Likidezia / Inbertsioak
Helburua	Enpresei eta autonomoei finantzaketarako sarbidea erraztea, haien likidezia-premiei erantzuteko, eta, bereziki, inbertsio berriak egitearen ondoriozkoei.
Azalpena	<ul style="list-style-type: none">• Mailegu, leasing, renting, confirming eta beste finantzaketa-modalitate batzuetarako abalak, jarduera-sektore guztietako autonomoei eta enpresei emandakoak, 2020ko uztailaren 29tik aurrera formalizatuak.• Autonomoei eta enpresei gehienez ere 5 urteko epea (eragiketa batean edo gehiagotan) duten 1,5M €-ko eragiketak minimis baten mende egongo dira, eta 1,5M €-tik gorako zenbatekoetarako edo 5 urtetik gorako epeetarako (ezingo da 8 urteko gehieneko epea gairitu), eragiketa guztiak Estatuko Laguntzen Aldi Baterako Esparruaren mende egongo dira.• Autonomoentzat eta ETEentzat, abala operazioaren printzipalaren % 80koa izango da gehienez, eta gainerako enpresentzat, operazioaren printzipalaren % 70 estaliko du.
Erakunde kudeatzailea	ICO, Abalen Lerroan parte hartzeko esparru-kontratua sinatuta duten finantza-erakundeekin lankidetzan.
Kontaktua	https://www.ico.es/web/ico/linea-de-avales-inversion-real-decreto-ley-25/2020 Laguntzeko telefonoa: 900 121 121

ETEentzako finantzatze-lerroak

Diru-laguntzak



Bideratu COVID-19

Xedea	Enpresak berregituratzea
Helburua	COVID-19ren hedapenaren ondoriozko krisiaren ondorioz dauden enpresak berregituratzeko eta garatzeko programa.
Azalpena	<ul style="list-style-type: none">• Erauzketako, eraldaketako, ekoizpeneko, lotutako zerbitzu teknikoetako eta informazioaren eta komunikazioen gizarteko industriako ETEentzako laguntzak, COVID-19ren ondorioz krisian badaude eta ez aurretik. 20 langile baino gehiago izan behar dituzte eta ez dute enplegurik suntsitu behar.• Diruz lagunduko dira industria- eta finantza-izaera berregituratzeko eta bultzatzeko aldi baterako laguntza-neurriak, krisialdian dauden enpresek egindako bideragarritasun- edo berregituraketa-planetan sartzen direnak. Laguntzaren zenbatekoa 2020ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako kutxa-fluxu negatiboaren %100era iritsi ahal izango da, 800.000 euroko gehieneko mugarekin, eta horrela, 12 hilabeterako plana jaso ahal izango da, 2020ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita.
Erakunde kudeatzailea	SPRI
Kontaktua	http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/04/2001850a.pdf

ETEentzako finantzatze-lerroak

Laguntzak



Inplantariak

Xedea	Telelana ezartzea
Helburua	Euskadiko autonomoei eta ETEei telelana berehala ezartzeko eta aholkularitza emateko zerbitzua.
Azalpena	Zerbitzu honen bidez, aholkulari teknologiko bat ETEen eta pertsona autonomoen eskura egongo da prozesu osoan, beharrak zehazteko eta proiektua modu erraz, arin eta indibidualizatuan ezartzeko: <ul style="list-style-type: none">• Berehala ezartzea, modu telematikoan.• Telelanean egin daitezkeen enpresako arloak identifikatzea.• Laguntza jarraitua benetan ezarri arte.• Aholkulari teknologikoen taldea
Erakunde kudeatzailea	SPRI
Kontaktua	https://www.spri.eus/es/inplantalariak/ Laguntzeko telefonoa: 902 702 142





3. Beste neurri interesgarri batzuk

Beste neurri interesgarri batzuk

Epeak luzatzea eta laguntzak aldatzea



Erakundea	Aldaketa mota	Edukia
BFA	Bizkaiko Foru Aldundiak lanean jarraitzen du epe administratiboak osasun-krisiaren ondorioz sortutako egoera berrira egokitzeko eta, horrela, enpresei eta ekintzaileei baldintza hobek errazteko. Ekonomia Sustatzeko Sailak hainbat neurri onartu ditu Beaz eta Seed Capital zuzendaritza eta sozietate publikoek ematen dituzten zerbitzuekin lotuta.	<ul style="list-style-type: none">• 2 hilabetetik hilabete 1era murriztu da Beaz sozietateak kudeatzen duen sozietateen gaineko zergaren 64 bis artikulua esparruan aurkeztutako I+G+B proiektuen balorazioa.• 2019ko berrikuntza-, sorkuntza- eta nazioartekotze-programak gauzatzeko epea 6 hilabetez luzatzea, gastu-kontzeptuak malgutuz. Helburua da proiektuak osorik gauzatu ahal izatea.• Berrikuntza Funttsaren gabealdia urtebetetik 2 urtera luzatuko da 2018/01/01etik 2020/12/31ra bitartean formalizatutako eragiketarako.• Seed Mikro enpresaren maileguen eta Seed Capital Bizkaiak kudeatzen dituen I, Bi eta FEIS funtsen kuoten itzulketa 6 hilabetera arte atzeratu da.

+info: <https://web.bizkaia.eus/es/web/area-de-prensa/noticias/-/news/detailView/20826>

